

HIZKUNTZALARITZA KLINIKOKO I. JARDUNALDIA

Afasiadun euskaldunen bizi kalitatea hobetu nahian

Basamortuan dabilta lanean euskal profesionalak. Hizkuntza nahasmenduak (afasia) dituzten euskaldunak artatzeko ia bitartekorik gabe egiten dute lan. Zein hizkuntza arazo duten ebaluatzeko euskarazko testik ez, hizkuntza berreskuratzeko esku-hartzea ere ezin egin euskaraz egoki, eta ikerketa lanak ere urri dira. UEUK eta Iker zentroak Hizkuntzalaritza klinikoko I. jardunaldia antolatu zuten irailaren 4an. Ikerlari eta profesional batzuk ari dira basamortua ureztatzen.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  UEU

Jardunaldiko lehen hizlaria da Lore Erriondo. EHUn pedagogia irakaslea da eta aitortu du ahaztu samar di-tuela afasiologiari buruzko kontuak. Aspaldi, 1993an, egin zuen *Afasiko elebidunen hizkuntz trebetasunen azterketa* tesia, eta gero ez du alor horretan jarraitu. Entzuleak adi daude, bai baitakite afasiadun euskaldunak aztertzen lehenetarikoa izan zela, lehena ez bazen izan. Panorama tristea aurkitu zuen Erriondok. Neurologia alorrean ikertzen hasi eta euskaraz ez zuen ezer aurkitu, ezta terminologia ere. Tesirako aztertu zituen 66 afasiadun euskaldunek ere bizipen ilunak zituzten. Denak ziren elebidun eta ia denak jatorriz euskaldunak. Euskaraz ari ziren egunerokoa, baina bortsax –esango du Erriondok– erdaldundu zituzten. Halako batean hizketarako gaitasuna galdu zuten, burmuinean gertatutako traumatismo baten ondorioz. Hizkuntza berreskuratzeko terapietan hartu zuten parte; batzuk ez zuten berriz hitz egiterik lortu, eta lortu zutenek gaztelaniaz egin zuten. Berreskuratzeko terapiak gaztelaniaz baino ez zeuden. Urte haietan pazienteei ez zitzaizkien galdetzen zein hizkuntza hitz egiten zituzten, ezta arazoa hizkuntza galera bazen ere.

NOLA BERRESKURATUKO DU EUSKARA INTERBENTZIOA ERDARAZ EGIN BADA?

Pedagogo aitzindariak mediku lizentziatu berriari egin dio tokia, Iker Vi-

llanuevari. Berak egindako inkesta baten berri eman digu. Ondokoa galdetu du: Euskal Herrian klinikariek zein hizkuntzatan eta zein materialen oinarrian aztertzen dute afasia elebidunetan?. Villanuevaren inkesta 77 pertsonen bete dute, %70 euskaldunak dira, eta %57 logopedak. %6,9k dio euskarara egokitutako tresnak erabiltzen di-tuela eta %93,1ek norberak egindako itzulpenak eta abar darabiltzala; Villanuevaren hitzetan ez dira kalitatezko ebaluaketak egiten modu horretara. Euskal afasiologia %23k baino ez du ezagutzen, eta euskarara egokitutako tresnen beharra sentitu du inkesta bete dutenen %98k.

Amaia Munarriz EHUKo Elebitasunaren Laborategiko (Elebilab) ikerlaria da eta CAT ebaluaketa-testaren euskal egokitzapena aurkeztu du. Hizkuntza nahasmenduen %85 iktusek eragindakoak direla dio. Gipuzkoan urtero 1.200 iktus izaten dira. Horietatik euskal hiztunak zenbat diren ez da jakina. Datu zehatza eman du ordea Munarrizek: Donostiako Ospitalean, 2018an iktusa izan zuten pazienteen %8k euskara lehenetsun hizkuntza zuen. CAT testa ingelesez garatutakoa da eta 26 hizkuntzatarata moldatzeko bidean da, tartean euskarara. Lan horren gidaritzan ari dira Munarriz eta Marie Pourquié ikerlariak. Biek ala biek uste dute ezinbestekoa dela hizkuntza

nahasmenduak ebaluatzeko euskarazko testa, Euskal Herri osorako balioko duena. Munarrizek, hizkuntzak berreskuratzeko zein faktorek eragiten duten azaldu du: hizkuntza bakoitzean duen gaitasuna, dakizkien hizkuntzen artean antzekotasunik baden ala ez, eta profesionalen esku-hartzea. Azken horri dagokionez, Munarrizek dio, esku-hartzea zein hizkuntzatan egin den garrantzi handikoa dela. Interbentzioa gaztelaniaz egiten bada hizkuntza hori berreskuratzeko du eta euskara berreskuratzeko askoz zailagoa egingo zaio. Horregatik dio pazientearen hizkuntza guztiak hartu behar direla kontuan eta pazientearen hizkuntza-nahiak ere bai.

EUSKAL ORTOFONISTEN ELKARTEA SORTU DUTE

Joana Itzaina ortofonista Euskal Ortofonisten Elkartearen kidea da. Ortofonistek –Iparraldean hala deitzen zaie, eta Hegoaldean logopedak dira– Frantziako araudipean egiten dute lan eta ez daukate euskal hiztun elebidunetan espezializatzeko aukerarik. Kexu da Frantzian, formazio garaian, eleaniztasuna ia aipatu ere ez delako egiten: “Ez dut sekula hauteman ondoko galdera: Nola lagunduko dugu hobeki haur elebidun bat?”. Ipar Euskal Herrian lan egiten duten euskal ortofonisten zerrendarik ez dute. Hala, Euskal Ortofonisten Elkartearen sortu dute eta hamar



HEMEZORTZI bat lagun elkartu ginen jardunaldian, ikerketa mundukoak asko, eta ortofonista sorta ere bai. Ia denak emakumeak.

bat kide hilero biltzen dira. Iparraldeko eta Hegoaldeko profesionalak batu nahi dituzte, baita ikerlariak eta praktikan lanean ari direnak ere. Pourquoié eta Marijo Ezeizabarrena (EHU, Elebilab ikerketa taldea) ikerlariak ere elkartean dira. Orain haurren ahazko euskara maila neurtzeko tresna prestatzen ari dira.

Maritxu Goyhenetxe ergoterapeutak proba xume eta era berean esanguratsua egin zuen Izpurako Luro Fundazioaren zahar etxean. Lanari izenburu hau jarri dio: *Ama hizkuntzaren erabileraren eragina Alzheimer dementziaz hunkitua den pertsonaren akonpainamenduan*. Ergoterapeutak pazientearen autonomia mantentzeko ahalegina egiten du eta Goyhenetxek jakin nahi zuen ea jatorrizko hizkuntzan artatuz gero gaixoaren gaitasunak gehiago sustatzen ziren. Dementia zuten lau

egoiliar euskaldun aukeratu eta goizko garbitze eta beztitze lanak behatu zituen; zaintza lehenengo euskaraz egin zuten eta handik hilabetera frantsesez. Behaketa subjektiboa bada ere, ondorio esanguratsuak antzeman zituen. Pazienteak lasaiago zeuden garbitzea euskaraz egin zenean, konfiantza handiagoa ageri zuten. Ondorioz, motibazio handiagoa agertu zuten eta erizainek gaixoak gehiago parte hartzea lortu zuten. Behaketa eta gero, egoitzako hamar langileri galderak egin zizkien. Goyhenetxeren ildo berean ziren haiek ere: euskaraz eginez gero pazienteak ez zen hain apatikoa; euskarazko hitz batzuekin nahikoa zen parte-hartzea handitzeko; beren buruaz gehiago hitz egiten hasi ziren; haien psikologiaz jakitea errazagoa zen horrela. Langileek ulertu zuten euskaraz hitz eginda egoiliarren an-

tsietateak behera egiten zuela, seguruago sentitzen zirela, eta profesionalen esku-hartzea errazago onartuko zutela.

Marie Pourquoié izan da jardunaldien sustatzaile nagusietakoa. Berak hasi eta amaitu du ekitaldia. Hizkuntzalaritza klinikoaren osasuna eta erronkak hitz gutxitan bildu ditu. Euskal Herrian hizkuntzalaritza asko landu da, eta aldiz, hizkuntzalaritza klinikoak ia batere ez. Inguru linguistikoa kontuan hartzen duen ebaluaketa-tresnarik ez dago, euskaraz ez da esku-hartze egokirik egiten hizkuntza arazoak dituzten pertsonak artatu ahal izateko, eta ikerketa lanak ere urri dira. Erronka da Iparraldeko eta Hegoaldeko profesionalak elkar ezagutzeko, eta ikerketa eta praktikaren arteko zubia egitea. Alegia, euskaldunen artean egin behar dela lan, gero euskaldunei eskaintzeko. ●